



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

Oroitzapen kolektiboak eta  
ongizatea: CEVI proiektua Euskal  
Herrian

*José Pizarro, Lander Méndez,  
Darío Páez, Nekane Basabe eta  
Saioa Telletxea*

206-213 or.  
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.25>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Deusto  
Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea



## Oroitzapen kolektiboak eta ongizatea: CEVI proiektua Euskal Herrian

Pizarro, J., Méndez, L., Páez, D., Basabe, N., eta Telletxea, S.  
*Euskal Herriko Unibertsitatea*  
*jose.pizarro@ehu.eus*

### **Laburpena**

Pertzepzio subjektiboan, eta ikuspuntu kualitatibo eta kuantitatiboan arteko konparaketan oinarritua izateak erreferente bihurtzen du CEVI proiektua (*Changements et événements au cours de la vie*, frantsesaz [aldaketak eta gertaerak bizi-ibilbidean]), zeinen helburua, herriek eta pertsonak nola gogoratzen duten jakitean datza. Txosten honek Euskal Herriko laginaren emaitzak aurkezten ditu hiru atal ezberdinetan: aurreko urteko gertaerak, bizitzan zehar bizitako inflexio puntuak eta gertaera sozio-historikoak; gainera pertsona guztiek bizi izandako ebaluaketa subjektiboak (i.e., galera, etekina, etab.) biltzen ditu. Emaitzak taldeen identitateak eta pertsonen ongizaterako inpaktua kontuan hartuta eztabaidatzen dira.

Hitz gakoak: oroitzapen kolektiboa, gertaera sozio-historikoak, ongizatea, taldeen arteko identitateak.

### **Abstract**

*Subjective perception, and the possibility of making quantitative and qualitative comparisons make the CEVI project (Changements et événements au cours de la vie, in french [changes and events in the course of life]) a referent and a tool that sheds light on the way different peoples and nations remember. This report shows the data obtained from the Basque Country's sample in three different sections: last year's events, inflexion points throughout life and socio-historical events; furthermore, with every mentioned event, people's subjective evaluations were gathered (i.e., gain, loss, etc.). The results are discussed in terms of groups' identities and people's well-being.*

*Keywords: Collective memories, socio-historical events, well-being, group identities.*

## **1. Sarrera eta motibazioa**

### **1.1. Oroitzapen Autobiografikoa.**

Oroitzapen Autobiografikoak pertsonok geure bizitzarekin lotuta dauzkagun oroitzapen guztiak eta oroitzapen hauek duten eduki sinbolikoa biltzen ditu. Hau da, pertsona bakoitzak bizi-gertaerei emandako esanahia eta balorazio subjektiboa barne hartzen ditu (Selva, Postigo, eta Montañes, 2005), etekin edo galeratzat hartuz. Honela, “oroitzapen autobiografikoaz hitz egitea [...] bizi esperientziez hitz egitea da” (Ruíz-Vargas, 2004, orr. 1), pertsona bakoitzak bere bizitza-zikloan metatutako esperientzien bitartez sortzen baitu bere bizitza. Bizi izandako esperientzien oroimenak norberaren sormenari bide ematen dio eta Oddonen (Oddone et al., 2008, orr. 130) iritziz, “pertsonen oroimenean dago norbanakoen identitatea”. Beste modu batean esanda, esan daiteke oroitzapen

autobiografikoa pertsonen eguneroko pertsonala dela (Paredes y Oberti, 2015) eta beraz, garrantzi handia dute oroitzapen autobiografiko indibidualean eragiten duten hainbat faktorek, inflexio puntu ere izendatu daitezkeenak, pertsonen bizitzan zehar marka utzi eta aldaketa handiak eragin ditzazketelako (e.b., portaera aldaketak, harreman aldaketak, etab.).

Gogoratzeko modua ikertzean, posible da nabaritzea errepikatzen diren elementu batzuetaz, “zer” eta “nola” gogoratzen dugun azaltzen dutenak. Hauen artean batzuk aipa ditzakegu (adib., ikusi Páez et al, prentsan):

- 1) oroitzapen autobiografiko indibiduala markatzen duten gertaerak. Jakina da gertaera batzuek inportantzia handiagoa daukatela besteek baino eta balio sinboliko hori normalean lotuta dagoela taldeen arteko hainbat funtsezko faktorearekin, eta beraz, funtzio sozial bat agertzen da;
- 2) bakoitzak gertaera historikoei buruzko oroitzapenak gogoratu, sortu, partekatu eta ebaluatzeko daukan modua. Esate baterako, oroitzapen autobiografiko guztiak ez dira gordetzen modu berberaz, nahiz eta balio subjektibo antzekoa izan. Hau da distira-oroitzapen-en kasua (*flashbulb memories* ingelesez; Hirst et al., 2015; Páez et al., prentsan), ez dutelako soilik gertaera bera gordetzen, baizik eta pertsona bera gertaeraz jabetzen den momentuko inguruko hainbat datu edo ezaugarri ere bai (e.b., non zegoen gertaeraz jabetu zenean, norekin, etab.).

Ikusten den moduan, oroitzapen autobiografikoek badituzte berezitasun batzuk gogoratzeko prosezuan eraginak sortzen dituztenak eta ondoriozta daiteke gertaera soilen ikerketa ez dela nahikoa hauei ematen zaien balio sinbolikoa ulertzeko. Oroitzen duguna eta nola oroitzen dugun hainbat aldagaien eraginpean dago. Guzti hau kontuan hartuta eta baloratuta, modu osoago batez jakina litzateke nolakoa den pertsonen bizi-ibilbidea.

## 1.2. Bizi-ibilbidea

Aipatutako giza-ibilbidea “sozialki erregulatutako adinaren arabera bizi etapen sekuentzia” da (Gastron eta Lacasa, 2009, orr. 3), eta hauek, hein batean, jendarteak pertsonengandik espero duenaren arabera definituta daude. Mendebaldeko jendarte gehienetan, adibidez, espero da adin jakin batera heltzean ikasi, lan egin eta familia bat sortzea, eta are gehiago, gertaera hauei ematen zaien pisu sinbolikoa aldakorra da; iguripen hauek bete ez izanak ez luke garrantzi bera izango pertsonok bizi garen jendarte guztietan.

Paredes eta Obertiren (2015, orr. 149) ustez, historia eta biografiaren artean sortzen dira (i.e., bakoitzaren bizi-ibilbideak), baita jendartearen aldaketan ere. Honela, bizitzako aspektu desberdinetan bizi dugunak, honen aspektu sozialak eta testuinguru sozio-historikoak (Oddone y Lynch, 2010) eragin zuzena daukate indibiduoaren sorreran eta garapenean (Gastron eta Lacasa, 2009). Bizi-ibilbidea modu objektiboz ulertu ahal izateko, ezin zaio gertaeraren intentsitate edo ondorioari bakarrik arreta jarri, baizik eta gertaeren testuinguru soziala eta tenporala ere kontsideratu behar da. Betancourtek (2004, orr. 126) azaldu zuen moduan “oroimena zuzenki lotuta dago espazio tenporalekin eta esperientziarekin”, eta lotura honek (beste faktore batzuk batera) azal ditzake sortzen ditugun hainbat isuri kognitibo (Luhmann, Hoffman, Eid, eta Lucas, 2012). Adibidez, pertsonok, bizi izandako gertakizunak maizago positibotzat hautematen ditugu negatibotzat baino (Walker, Skowronski eta Thompson, 2003). Hau da, oroimen positiboak gehiago dira geure eratzeko orduan. Hala baina, kontrako norabiderantz jotzeko ebidentzia badago, marka gehien uzten dutenak oroitzapen negatiboak baitira (Luhmann, Hoffman, Eid, eta Lucas, 2012), hauek duten kostuagatik. Honen azalpen bat izan liteke gertaera negatiboek gaizki erantzuteak dituen arriskuak kaltegarriagoak direla gertaera positiboek gaizki erantzutea baino (edo ez erantzutea, Rozin eta Fallon, 1987), eta hau dela-eta, posible da espezieen garapenean ezaugarri hau onetsia izan dela (Baumeister et al., 2001).

Nahiz eta oraindik zaila den isuri kognitiboen inguruan sortzen diren hainbat galdera eta hipotesiei modu ziurrean erantzutea, bizitzako gertaerak hartu behar dira testuinguruarekin, egungo beharrez eraikitzen baita gure iragana. Ildo berean, ikerketa objektu gisa talde sozial oso bat hartuko balitz, posible litzateke ziurtasun horretara gehiago gerturatzea.

### **1.3. Oroitzapen Kolektiboa (OK)**

Memoria kolektiboaren ikerketa, testuinguru sozio-historiko batean talde sozial batek nola, zer eta zergatik gogoratzen duen lantzean kokatzen da. Hau da, gertaeren oroitzapena ikerketa objektu gisa hartzeaz gain, hauek sortzen diren moduari ere egiten zaio erreferentzia eta honela, gehiago jakin daiteke oroimenaren garrantzi sozialari buruz.

Oroitzapen kolektiboa gizabanakoek taldeetan ahoz transmititutako prozesuen bitartez sortzen da, eta bizi izandako gertakizunen inguruan banakako esperientzien hartu-emanaz eragiten da. Páezek (2001) dioenez, “memoria kolektiboa gertaera historiko batez sortutako eta partekatutako irudia da” (orr. 227). Beraz, hau ez da bakarrik denon artean gogoratzen eta transmititzen duguna, oinarriko funtzio sozialak dituzten oroitzapen motak direlako ere. Oroitzapen Kolektiboak:

- 1) autoestimu positiboa mantentzen du,
- 2) taldearen jarraipena bilatzen du,
- 3) bereizgarritasun-motibazioa mantentzen du,
- 4) taldearenganako izate sentimendua eta eraginkortasuna sortzen du, eta
- 5) esperientziari zentzua ematea bilatzen du (Lyon, 1996).

Honela, identitate sozialaren defendatzaile funtzioa betetzen du (Rottenbacher eta Espinosa, 2010). “Memoria kolektiboa iraganeko birsortze bat da, gaur egungo beharretatik sortua” (Oddone, et al., 2008, orr. 125). Gizataldearentzat esanguratsuak diren eta nolabait markatu duten oroimenen eraikuntza da. Oroitzapen kolektiboaren bidez iragan sozialaren gertakizunen jakinduria zabalki partekatzen da.; pertsonalki bizi ez izan arren, gizarte-komunikazioaren bitartez kolektiboki eraikitako oroimenak baitira (Schuman eta Scott, 1989). Hauek irudikapensozialak dira eta komunikazio informal, ekintza publiko, liburu eta beste batzuetaz bidez mantentzen dira. Hala iragana zaintzeko eta gordetzeko tresnatzat har daitezke (Coman, Brown, Koppel eta Hirst, 2009). Are gehiago, oroitzapen kolektiboak, jendarte identitaterako informazio garrantzitsua dira eta jendartean zabaltutako jakitea dira ere. Komunikazioarekin lotura daukan funtzio sozialez eraikia da (Schuman eta Scott, 1989) eta honengatik, zentzu sozial hau da ulertu beharrekoajakiteko zergatik gogoratzen ditugun sozialki gertaera batzuk eta ez beste batzuk.

#### **1.4. Oroitzapenak, adina eta ongizatea.**

Memoria kolektiboaren paradigman (i.e., giza talde bateko pertsonen oroitzapenak globalki hartzea), gehien aipatzen diren oroitzapenek (eta balorazioak) erakusten dituzte haien irismena (identitate kolektiboarentzako eta ongizaterako) eta sortzen dituzten faktore sozialak (e.b., edukia, emozio-maila; Páez, Bellelli eta Rimé, 2009). Bestalde, gertaeraren ezaugarriak eta bizi izan zen momentua kontuan hartuta, adin tarte ezberdinak gainditzen dituzten gertaerak aurki daitezke. Distira-oroztapen eta oroitzapen autobiografikoarekin gertatzen den bezala, gertaeren bereizgarriei arreta jarriko balitzaie, patroi bat errepikatzen dela kontura gintezke, eta patroi hau uler daiteke bizitza sozialari erreparatuz.

Gure bizitzaren gertaerak gogoratzeko faktoreen artean dauden aspektu kritikoetariko bat da gertaera bat bizi izan den adina, honakoak gogoratzeko prozesuari eragiten diola ere.. Adibidez, jendarte bateko pertsonak adin kohortez banatuz gero, erraz ikusten da pertsona guztiek ez dituztela proportzio berean gertaerak gogoratzen (ikus CEVI proiektua, d'Epina, Cavalli, eta Aeb, 2008), gertaerek eragindako inpaktua ezberdina da eta.

Adinak gogoratzeko prozesuan duen efektuak adin kritiko hipotesia du izena (adib. Schuman eta Scott, 1989) eta bere azalpena bizitzako garapen adinarekin lotuta dago. Mannheimen (Schuman eta Scott, 1989-en aipatuta) ustez, pertsonak hobeto gogoratzen dituzte gertakizun historikoak hasierako nerabetasunean eta heldutasunean, norberaren identitate soziala formatzeko garai bat delako. Bestela esanda, adinak ere badu inpakturik gogoratzen dugunean, ez delako gauza bera adibidez, krisi ekonomikoa enplegutik erretiratzear bizitzea, 25 urterekin familia sortuz baino. Ildo berean, ez da hein berdinekoa izanen gertaera horren inpaktua norbanakoaren ongizatean.

Adinaren talkaz gain, gertaerei buruz egiten dugun balorazio subjektiboak efektu ezberdinak izango ditu gure ongizatean eta azken hauek alda daitezke ere denbora perspektiba aintzat hartuz gero (Bilbao, 2008). Ikus daitekeen bezala, gertaerak, balorazioak eta adina gogoratzeko prozesua deskribatzeko ez ezik, pertsonak elementu sozialtzat hartuz ulertzeko ere har daitezke eta honela, oroitzapen prozesua giza prozesu bihurtzen da.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ikerketa hau kokatuta dago nazio arteko CEVI proiektuan (d'Epina, Cavalli, eta Aeb, 2008) eta Euskal Herriko pertsonen oroipen askea ikertzea du helburu, hiru sekzio ezberdinetan:

- 1) Aurreko urtean bizitzako gertaerak
- 2) Bizitzan zehar bizitzako gertaerak
- 3) Gertaera sozio-historikoak

Bestalde, hipotesi hauek proposatzen ditugu:

- 1) Aurreko urtean egindako balorazioek inpaktu handiagoa izango dute ongizatean urrunekoek baino. Hain zuzen ere, balorazio positiboak (i.e., etekintzat jotak) izango dira indartsuenak.
- 2) Negatibotzat hartutako gertaerek inpaktu handiagoa izango dute ongizate afektiboan positiboek baino.
- 3) Gertaera historikoen ezaugarriak eta pertsonen bizi izan duten momentua direla-eta, gertaera batzuk kohorte guztiek aipatuak izango dira (i.e., periodo efektua); beste batzuk, berriz, adin kohorte batzuek bakarrik (i.e., kohorte efektua).

## 3. Ikerketaren muina (Taulak, irudiak, formulak...)

267 pertsonak hartu zuten parte 5 adin talde ezberdinetan: 20-24, 35-39, 50-54, 65-69 eta 75-88 urtekoak (M = 38.56, DE = 20.95 urte; %59.9 emakumeak).

1. taulak erakusten ditu gehien aipatutako gertaerak, aurreko urtean bizitakoak (adib., etxebizitzaz aldatzea, lehengo enplegua lortzea, edo enamoratzeko edo harremanetan hastean) eta bizitzan zehar bizitakoak (adib., jaiotza esanguratsuak, ahaide edo lagun baten heriotza, edo heziketak hastea edo berrartzea).

**1. taula. Aurreko urtean eta bizitzan zehar gehien aipatutako gertaerak.**

Aurreko urtean bizitakoak	%	Bizitzan zehar bizitakoak	%
Etxebizitza aldatzea	18,10	Jaiotzak	22,48
Lehengo Enplegua	14,29	Beste ahaide edo lagun batzuen heriotza	16,94
Enamoratzea edo harremanetan hastean	14,29	Heziketa hastea edo berrartzea	15,31
Beste ahaide edo lagun batzuen heriotza	13,33	Enamoratzea edo harremanetan hastean	8,47
Jaiotzak	9,52	Gurasoen heriotza	7,82
Lagun berriak, harreman aldatzea	8,57	Ezkontza	7,49
Gurasoen heriotza	6,67	Etxebizitza aldatzea	7,17
Banantzea	5,71	Garaipen pertsonala	5,54
Gurasoen etxea uztea	5,71	Banantzea	4,56
Ebakuntza edo ospitalizazioa	3,81	Gurasoen etxea uztea	4,23
Guztira	100	Guztira	100

Korrelazioak egitean aurkitzen da adina modu negatiboz erlazionatzen dela gertaera positiboekin (GP), modu positiboz aurreko urtean gertaera negatiboekin (GN;  $r = -.23$ ,  $p < .01$ , eta  $r = .123$ ,  $p < .05$ , hurrenez hurren), eta GP totalekin ( $r = .12$ ,  $p < .05$ ). Bestalde GP totalak erlazionatzen da indartsuago ongizate globalekin negatiboak baino ( $r = .16$ ,  $p < .01$ , eta  $r = -.8$ ,  $p < .10$ , hurrenez hurren). Ongizatearekin jarraituz, ongizate orokorra indartsuago erlazionatzen da aurreko urtean bizitako GPekin ( $r = .19$ ,  $p < .01$ ), bizitzan zehar bizitako GPekin baino ( $r = .09$ ,  $p < .10$ ).

Gertaera negatiboek dagozkionez, GN totalak modu negatiboz erlazionatzen dira ongizatearekin ( $r = -.11$ ,  $p < .05$ ) eta bizitzan zehar bizitako GNak, afektu negatiboarekin ( $r = .14$ ,  $p < .05$ ), baina ez aurreko urteko GNak ( $r = -.05$ ,  $p > .10$ ).

**2. taula. Gertaera sozio-historikoen aipatze portzentajea adin kohorteen arabera.**

Gertaerak	Aipatua	Adin kohorteak					Konparaketak	
		20-24 urte	35-39 urte	50-54 urte	65-69 urte	79-88 urte	X <sup>2</sup> (ag)	p
Gaur egungo krisi ekonomikoa	Ez	67,74	78,79	87,18	94,12	96,15	16.72 (4)	< .01
	Bai	32,26	21,21	12,82	5,88	3,85		
Francoren heriotza (1975)	Ez	-	-	66,67	58,82	57,69	.63 (2)	.726
	Bai	-	-	33,33	41,18	42,31		
11-S Atentatuak (2001)	Ez	89,52	84,85	87,18	76,47	100,00	6.51 (4)	.164
	Bai	10,48	15,15	12,82	23,53	0,00		
ETAren borroka armatuaren amaiera (2011)	Ez	86,29	87,88	87,18	94,12	100	4.64 (4)	.326
	Bai	13,71	12,12	12,82	5,88	0		
Espainiako gerra zibila eta diktadura (1936-1975)	Ez	-	-	94,87	70,59	57,69	14.21 (4)	< .01
	Bai	-	-	5,13	29,41	38,46		

*Oharrak:* (ag) (askatasun graduak); “-“ sinboloak erakusten ditu gertaera bizi izan ez duten pertsonak.

2. taulak erakusten ditu gehien aipatutako gertaera historikoak eta aipatze portzentajea adin kohorte desberdinetan. Hain zuzen, 2 gertaerak kohorte efektua dute eta hauek dira “Gaur egungo krisi ekonomikoa” ( $X^2_{(4)} = 16.72$ ;  $p < .01$ ) eta “Espainiako gerra zibila eta diktadura” ( $X^2_{(4)} = 14.21$ ;  $p < .01$ ), non aipatze portzentajea handiagoa den kohorte batean. Bestalde, beste gertaerek proportzio antzekoak erakusten dituzte kohorte ezberdinetan (i.e., periodo efektua;  $p$  guztiak  $> .10$ ).

#### 4. Ondorioak

Ikerketa honek agerian uzten du GP-ak inpaktua daukala pertsonen ongizatean eta gertaera pasatu berriek garrantzia berezia daukatela.. Alabaina, pertsonen afektuak erakusten du dualtasun berezi bat: GPek inpaktu handiagoa dute epe motzera eta GNek, epe luzera. Beraz, posible da esatea negatiboaren marka luzea (Luhmann, Hoffman, Eid, eta Lucas, 2012) indartsuagoa dela positiboaren iraunkortasuna baino (Walker, Skowronski, eta Thompson, 2003).

Are gehiago, posible da esatea ere ebidentzia argia aurkitu dugula gertaera batzuk kolektiboki hartzen direla (e.b., ETaren borroka armatuaren amaiera eta 11-S atentatuak) eta beste batzuk indibidualki hartzen direla (Páez et al., prentsan).

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerketa honekin batera planteatzen diren erronkak hauek dira:

- 1) CEVI proiektuaren koordinatzaileekin Euskal Herriko datuekin lan egitea. CEVI metodologiari jarraituz, lan kolektiboa da proiektu honena eta horregatik, hemen jasotako datuak konparatuko dira beste herrialdetan jasotako datuekin.
- 2) Bizitzako gertaeren aspektu emozionalak ikertzea. Proiektu hau modu ugaritan zabaldu daiteke, eta hauetako bat pertsonak gertaerekiko dauzkaten sentimenduak ikustean datza, jendarte hau hobeto ezagutu ahal izateko.

## 6. Erreferentziak

- Baumeister, R. F., Bratslavsky, E., Finkenauer, C., eta Vohs, K. D. (2001). Bad is stronger than good. *Review of general psychology*, 5, 323-370. doi:10.1037/1089-2680.5.4.323
- Betancourt, D. (2004). Memoria individual, memoria colectiva y memoria histórica: lo secreto y lo escondido en la narración y el recuerdo. Internetetik: <http://biblioteca.clacso.edu.ar/Colombia/dcs-upn/20121130052459/memoria.pdf>.
- Bilbao, M. (2008). Creencias sociales y bienestar: Valores, creencias básicas, impacto de los hechos vitales y crecimiento psicológico. (Tesi doktora). Universidad del País Vasco. España.
- Brown, R., eta Kulik, J. (1977). Flashbulb memories. *Cognition*, 5, 73–99.
- Coman, A., Brown, A.D., Koppel, J. eta Hirst, W. (2009). Collective Memory from a Psychological Perspective. *International Journal of Political and Cultural Sociology*. 22:125–141
- d'Epina, C. L., Cavalli, S., eta Aeby, G. (2008). Générations et mémoire historique. Une comparaison internationale. In Vrancken, D., eta Thomsin, L. (Edk.), *Le social à l'épreuve des parcours de vie* (orr. 245-259). Academia Bruylant, Lovaina Berria.
- Gastron, L., eta Lacasa, D. (2009). La percepción de cambios en la vida de hombres y mujeres, según la edad. *Población y sociedad*, 16, 3-27.
- Hirst, W., Phelps, E. A., Meksin, R., Vaidya, C. J., Johnson, M. K., Mitchell, K. J., ... Olsson, A. (2015). A ten-year follow-up of a study of memory for the attack of September 11, 2001: Flashbulb memories and memories for flashbulb events. *Journal of Experimental Psychology: General*, 144(3), 604–623.
- Luhmann, M., Hofmann, W., Eid, M., eta Lucas, R. E. (2012). Subjective well-being and adaptation to life events: a meta-analysis. *Journal of personality and social psychology*, 102, 592.



- Lyon, E. (1996). Coping with social change: processes of social memory in the reconstruction of identities. *Changing European identities: Social psychological analyses of social change*, 31-39.
- Oddone, M. J., y Lynch, G. (2008). Las memorias de los hechos socio-históricos en el curso de la vida. *Revista argentina de sociología*, 6, 121-142.
- Páez, D. (2001). Represión política y memoria colectiva: El caso chileno. En D. Páez, *Asedios a la memoria*, (orr.219-247). Ediciones Chile América-CESOC, Txileko Santiago.
- Páez, D., Bellelli, G., eta Rimé, B. (2009). Flashbulb memories, culture and collective memories: psychosocial processes related to rituals, emotions and memories. In Luminet, O., eta Curci, A. (Edk.) *Flashbulb Memories* (orr.227-246). Lehen edizioa. Psychology Press, Hove eta NY.
- Páez, D., Mathias, A., Cavalli, S., Guichard, E., Pizarro, J.J., Méndez, L., eta El-Astal, S. (prentsan). Flashbulb Memories and Collective Memories: Psychosocial Processes Related to Rituals, Emotions and Memories. En O. Luminet, A. Curci eta M.A. Conway (Edk.), *Flashbulb Memories: Current Perspectives*. Psychology Press Second Edition, Londres.
- Paredes, M., y Oberti, P. (2015). Eventos sociohistóricos en la vida de los uruguayos. Una perspectiva generacional. *Revista de Ciencias Sociales, DS-FCS*, 28, 145-168.
- Rottenbacher, J. M., eta Espinosa, A. (2010). Identidad nacional y memoria histórica colectiva en el Perú. Un estudio exploratorio. *Revista de Psicología*, 28, 147-174.
- Rozin, P., eta Fallon, A. E. (1987). A perspective on disgust. *Psychological review*, 94(1), 23.
- Ruiz-Vargas, J.M. (2004). Claves de la Memoria Autobiográfica. En C. Fernández y M. A. Hermsilla (Edk.). *Autobiografía en España: Un balance* (orr. 183-220). Visor, Madril.
- Schuman, H., eta Scott, J. (1989). Generations and Collective Memories. *American Sociological Review*, 54, 359-381.
- Selva, J. S., Postigo, J. L., eta Rodríguez, J. M. (2005). Terapia sobre revisión de vida basada en la recuperación de recuerdos autobiográficos específicos en ancianos que presentan síntomas depresivos. *Rev Esp Geriatr Gerontol*, 40, 228-35.
- Tamayo Agudelo, W. (2012). Memorias Flashbulb y representaciones sociales. Propuesta para un estudio conjunto. *Revista Psicoespacios*, 6, 183-199.
- Walker, W. R., Skowronski, J. J., eta Thompson, C. P. (2003). Life is pleasant and memory helps to keep it that way. *Review of General Psychology*, 7, 203-210.

## 7. Eskerrak

Ikerketa hau MINECOk (PSI2014-51923-P) eta Eusko Jaurlaritzak (IT-666-13) finantzatuta dago. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu zuten pertsona guztiei eta bereziki, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako 2015-16 kurtsoko ikasleei.